

noaua

**Ingemarrek Erregulazio
Espedientea aurkeztu du**

**Zubietako Eskolan
LH osoa ezartzeko
eskaera**



Jakinduriaren eta jakinminaren topaleku



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Baxoalde 4 behe, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

•GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

ESKAERA EGITEKO AZKEN EGUNA, EKAINAK 16!

(Izapide guztiak egiten ditugu: Osasun Saileko baimenak, Udala, Erregistro Zibila, osasun-garraioa errauts-labera edo beste hilerri batera...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

943 36 21 63 (24H)

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



• BEILATOKI GUZTIAK • ERRAUSKETAK

• EDOZEIN ASEGURU IZANDA (**OCASO, SANTALUCIA...**) HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

943 36 46 00

www.lhusurbil.eus

Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduak

Administrazioa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produktzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

AURREMATRIKULA ekainaren 5etik 16ra



Albiste iruditzen

“Ekainaren 10ean, denok Bilbora”

2017a amaitzerako, galdeketak eta erabakitze eskubidearen inguruko eztabaida milioi bat herritar bizi diren eremuetara iritsiko dira. “Lorpen itzela da hori. Gure esku dagoen guztia egingo dugu herri honetan erabakia gauzatu dadin”. Larunbat honetan, hori izango da Bilbon defendatuko duten mezua: “erabakitze prest gaude eta libreki eta demokratikoki galdetuak izan nahi dugu Euskal Herriaren etorkizun politikoa erabakitze”. Horregatik, herritarrei dei egiten diete parte hartu dezaten irudikatuko den mosaiko erraldoian. “Galdeketetan parte hartu duzuen herritarrak, galdeketa antolatzen ari zaretenak eta erabakitze prest zaudeten guztiak zita garrantzitsua duzue Bilbon. Ekainaren 10ean, denok Bilbora. Erabakitze prest gaude”.



“Inoiz ikusi gabeko galdera ikur erraldoia osatuko dugu denon artean”. Usurbilgo Gure Esku Dago taldearen autobusa 15:30ean abiatuko da. Aurretik eman behar da izena.

Autobusa Usurbildik

Larunbat honetako manifestazioa Bilboko Euskadi plazan hasi eta Eliptika

Plazara iritsiko da. 17:30ean abiatuko da.

Usurbilgo Gure Esku Dago taldeak Bilbora joateko autobusa antolatu du. Hori bai, ostiralera arte egongo da autobusean

izena emateko aukera: Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan aurkituko dituzuen orrietan. Autobusa 15:30ean aterako da, kiroldegi paretik.

Laburrean

Oinarrizko Lanbide Heziketako matrikulazioa

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketan matrikulatzeko epea ekainaren 16an amaituko da. Bi dira eskaintzen diren zikloak: Ile-apainketa eta Estetika arloa; Sukaldaritza eta Jatetxe arloa. Informazio gehiago: 943360465 / lhi@usurbil.eus

Danborradako entseguak abiatzeak

Ekainaren 14an abiatuko dira entseguak, eta astelehen, asteazken eta ostiralero egingo dira, 20:00-21:00 artean, Udarregi Ikastolako frontoian. Uztailearen 1ean ospatuko da danborrada, larunbatez aurten, 19:00-21:30 artean.

Jai Batzordearen azken bilera

Usurbilgo festen antolaketa lanak borbiltzeko azken bilera deitu du Jai Batzordeak, ekainaren 13rako, asteartea. Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Bilera irekia izango da herritar nahiz eragileentzat.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noqua.eus // www.noqua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herria!



Imanol Ubeda

Baratze kontuak

A ita hil eta gero bere baratzea gobernatzen hasi ginenetik, bestelakoak dira gure maiatzak. Tomatea, piper txikia, leka edota kalabazina landatzeko garaia izaten da. Lehenxeago hasi ginen zerbarekin eta urazarekin. Marrubia ere, apirila amaieran landatu genuen, ilobarekin batera. Lehen marrubi gorriarekin batera, hura poza ilobak hartu zuena. Hurrengo egunean ikastolara eraman zuen. Berak landatutako lehen marrubia zen! Eta bere gelakoei erakutsi behar zien. Orain 5 urteko neskatilarekin batzen garen bakoitzean galdetza dugu, ea marrubi gehiago iritsi al diren, ea noiz egingo ditugun marrubizko gailetak. Itxaron beharko du ba, gaixoak.

Koadrilan badut baserrikoa

den lagun bat. Eta whatsapp bidez baratzeke argazkiak igortzen ditudan bakoitzean zur eta lur geratzen da. Ezin sinistu nonbait. Lan hauetan, kalekumeok aurreiritzi asko jasan behar izaten ditugu. “Zimaurra behar dekenean, baserrira etorri bila. Hemen sobera zagok!”. Uff, eskerrik asko, baina lasai, badugu. Kooperatiban bestelako usaina duen ongarrria badela deskubritu dugunetik... “Hau doan aterako zaik orde!”. Bale bale, gaur ezin dut ba joan, larri nabil beste kontu batzuetan, gainera ongarririk badugu aurten, datorren urtean akaso...

Konturatu orduko, joan da maiatza. Ia oharkabea. Baina ez alperrik. Hilabete eskas igaro da landatzen hasi ginetik eta dagoeneko hasi da ematen. Zerba hosto batzuk banatu ditugu honez gero. Bai-

ta uraza ederrak ere. Kalkulu azkar batean, iazkoan uztaren %80a edo ingurukoan artean banatuko genuen (ez da oso zientifikoa kalkulu hau; zer nahi duzue, letretakoa naiz eta hitzak juntatzearekin nahikoa lan badut). Hala jasotzen genuen lehen. Baratzeari bizkar emanda bizi ginenean. Eskatu gabe hartzen genuen. Eta orain, jasotzen duguna banatzen dugu guk orain. Hala erakutsi zigituen. Hala egiten dugu.

Uzta ingurukoekin partekatzek sorrazten duen poza berri samarra da guretzat. Harrotasun pixka bat ere eragiten digu, zergatik ez esan. Guk landatu, ureztatu eta zaindutakoak direlako. Baina beti bada poza zapuztuko dizun norbait. Izeba bati dagoeneko bitan edo emango genion uraza eta zerba hostoz betetako poltsa. Laster ala berandu

entzun beharra genuen *urteroko galdera magikoa*. “*to-materik ez al duzu ekarri?*”. Urteroko matraka inoiz baino lehenago hasi da aurten. Landatu dugu izeba, baina oraindik goiz samar da. “Zure aitari ederrak ateratzen zitzaizkion ba!”. Ba guk ez dugu asmatzen. Gainera, oso goiz da oraindik. Agur!

Gauzak zer diren. Baratze lanari esker, harremanak estutu ditugu bizilagunarekin. “Kaixo” eta “agur”. Lehen, gure konbertsazioa hori izaten zen. Baratzeak parez pare ditugu orde, eta lurra landatzen hasi ginenetik oso gertu izan dugu. Maiz laguntzen digu eta bere jakinduria oso garrantzitsua izan da guretzat. Adinekoek duten hizkera eder hori du gainera. Bere doinua, bere euskara guban landatzerik izango bagenu...

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Usurbildarrak, Gasteizko Euskal Herria Kantuz Egunean

Maiatzeko azken larunbatean ez zen hileroko kantu-jirarik ospatu Usurbilen. Kantu Taldeko 27 kide Gasteizera joan ziren egun pasa, Arabako hiriburuan antolatu zuten Euskal Herria Kantuz ekimenean parte hartzera. Bizi izandako egunaz, ondoko idatzia helarazi dute NOAUA!ra Kantu Taldeak:

"Euskal Herria Kantuz 2017" egunean

Aurtengo Euskal Herria Kantuz eguna Gasteizen ospatu dugu. Bertan izan gara Usurbilgo Euskal Kantu Taldeko 27 lagun. Arabarrek izan dute, maiatzaren 27an, larunbatean, egun eder hau antolatzearen ardura. Bai ederki gauzatu ere!

"Araba, zazpigarren aldaba" lelopean Euskal Herriko zazpi herrialdeetatik etorritako ehunka kantuzaleen arteko Kantu Jira Nazionala egin genuen Gasteizko kaleetan zehar, kantu esanguratsuenak abestuz.

Imanol Urbietari omenaldi xume bat eskainiz amaitu genuen goizeko partea. Haur eta kantuzaleon artean "Ran rober ran", "Jon Braun" eta "Behin betiko" abestu genituenean sentimenduz betetako uneak bizi izan genituen Foruen plazan: "Uztaia gora gora lurretik zerura",... beren uztaiak gora eta behera erabiliz ikuskizun



'Euskal Herria Kantuz eguna' Gasteizen ospatu da aurten. Usurbilgo Euskal Kantu Taldeko 27 lagun izan ziren bertan.

KANTU TALDEA

"800 lagunentzako kantu-bazkari mundiala prestatu ziguten gasteiztarrek. Eten gabeko lan arduratsuen ondorioz dena txukun eta dotore irten zen"

xarmanta plazaratu zuten bertan ziren umetxoek. Argazki polita bizi izandakoa.

Baina zer izango litzateke bazkaririk gabeko kantu eguna? Horretarako, 800 lagunentzako kantu-bazkari mundiala prestatu ziguten gasteiztarrek Iradier Arena eraikuntzan. Eten gabeko lan arduratsuen ondorioz dena txukun eta dotore irten zen. Bejondeiela!

Arratsaldean, berriz, kantuzaleon ekitaldiari ekin genion Foruen plazan. Aurten, indar berezia jarri nahi izan zaie he-

rrialdeetako kantu tradizionalai; herrialdeka bina herri-kantu abestuz eta horrekin batera herrialdeko dantzaren bat edo beste dantzatzuz.

Egun zoragarria igarotzeaz gain euskaldunago sentiarazten gaituen euskal kantu eta dantzez gozatu genuen, elkarren arteko desberdintasunen goitik adiskidetasuna bultzatuz eta denona dugun hizkuntzan mintzatzen ahaleginduz. "Dakitenek erabiliz, ez dakitenek ikasiz",... hala dio kantuak.

Esker aunitz Gasteiz Kantuzi horrelako egun eder hau honela borobiltzeagatik. Datorren urteko ardura nafarren eskuetan geratu da. Ziur egun ederra antolatuko dutela. Gu han izango gara ekimen nazionala bihurtu den herri dinamika hau nola kantuz, hala dantzaz hauspotuz, euskaratik eta euskaraz bizitzeko.

Usurbilgo Kantu Taldea".

Ttipikaren bi abesti saritu dituzte

Euskal Herriko Trikitixa Elkarateak antolatu duen Maketa Lehiaketan 10 abesti saritu dituzte, tartean, Usurbilgo Ttipika Dantza Gidatuen taldekoen bi kanta; "Ezinaren eginez" eta "Iraltz arina". Bi abestiok laster entzungai izango ditugu. Trikitixa elkarateak ekainaren erdialdetik aurrera grabatuko duen Maketa Lehiaketako gainerako zazpi trikitilari bakarlari, bikote zein taldeek aurkeztu dituzten 8 abesti sarituekin batera. Zorionak!



Trikitixa Elkarateak disko batean plazaratuko ditu bi abestiok.

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrena, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrena 8
☎ 943 370 008

Ingemarreko langileentzako EEE aurkeztu dute

Kinka larrian dago Ingemar lantegiaren eta langileen etorkizuna. NOAUA!ri berri eman diotenez, maiatza amaieran langileentzako EEE (“ERE”) aurkeztu zuten Lugoko (Galizia) epaitegian. Artean, maiatzaren 31z geroztik langileak Kutxabankek Donostiako Garibai kalean duen egoitzan mobilizatzen ari dira astelehen, asteazken eta ostiral goizero, 11:00-12:00 artean. Ingemar ez ixtea eskatzen ari zaie Kutxabanki.

Mobilizaziook iragartze-ko maiatzaren 26an egin zuten agerraldian argitu zuten elkarretaratzeon zergatia. “Hainbat informazioen arabera, Kutxabank erakundea, konkurtsoko hartzekoduna denez, estutzen ari da Usurbilgo plantila osoarentzako



Kutxabankek Donostiako Garibai kalean duen egoitzan mobilizatzen ari dira astelehen, asteazken eta ostiral goizero, 11:00ak eta 12:00ak artean.

LANGILEEN BATZORDEA

“Kutxabank erakundea, konkurtsoko hartzekoduna denez, estutzen ari da Usurbilgo plantila osoarentzako amaierako EEE bat irekitzeko”

amaierako EEE bat irekitzeko, enpresaren jabetzako lursailak

bereganatu eta etxegintza-erloto diru-jana egiteko”.

Hedabideen papera

Ingemarreko langileek eskaera egin diote Kutxabanki, argi dezala benetan, Ingemar itxi nahi ote duen edo ez. Langileek haien haserrea agertu dute, maiatzaren 26an egin zuten agerraldiak hedabideetan izan duen oihartzun eskasagatik.

Udan ere euskara ikasteko aukera

Etumeta AEK euskaltegiak B2 eta C1 mailak prestatzeko 100 orduko ikastaroak antolatu ditu uztailaren 5etik irailaren 14ra. Klaseak egunerokoak eta 4 ordukoak izango dira. Honez gain, Euskal Herri mailan ikastaro trinkoak, bi asteko barnetegiak, familia barnetegiak edota barnetegi ibiltariak antolatu ditu AEK-k. Mintzalagun egitasmoan ere noiznahi inskribatzeko aukera dago. Informazio gehiagorako eta izen emateko:

- Kale Nagusia 43, behea
- 607 609 379
- munterri.blogspot.com.es
- usurbil@ae.k.eus
- aek.eus



Eskaintza zabala da. Argazkia: AEK.

Herritzarturen egoitza atariko eraso salatuta du udalbatzak

Maiatzaren 13an goizaldean su eman zioten Herritzarturen egoitza atarian zintzilikatua egon eta maiatzaren 7ko Usurbilgo herri galdeketa emaitzak biltzen zituen pankartari. Inguruan zebiltzan herritarren sua itzaltzeko ahalegin azkarrari esker ez zuen kalte material larrikeria eragin, nahiz sutea inguruko etxebizitzetara zabaltzeko arrisku handia izan zen. Handik ordu gutxira, eraso salatuta zuten Herritzartur eta Gure Esku Dago mugimenduak plazaratu zuten adierazpenak.

Salaketa horretara batu da orain Usurbilgo Udala. Gai honi buruzko mozioa aurkeztu zuen EHBilduk azken osoko ohiko bilkuran. Gehien- go osoz onartu zuten. “Kartel



Gure Esku Dagoren salaketara batu da Usurbilgo Udala.

bati baino gehiago, galdeketa egunean parte hartu genuen 1.848 usurbildarroi eraso egin digute. Herritzartur eta Gure Esku Dago kaleratutako gaitzespen-oharreen zera diote: “Erabakitze eskubidea nahi dugula eta praktikara eraman nahi dugula adierazi genuen ozenki, eta hori ezin da egun batetik bestera isilarazi”. Adie-

razpen hau sinatzen dugunok bat egiten dugu beraien adierazpenekin”.

Eskertza bikoitza

Beste bi eskertza puntu ere baditu mozio honek. Eginko lanagatik, maiatzaren 7ko herri galdeketa antolatzaileak eskertzen ditu mozioak, “egindako lan guztiak bere

fruituak eman dituelako”. Eta esker hitzak baita herritarrentzat ere. “Usurbildarrok eta zubietarrok erakutsi dugun konpromisoa eskertu nahi dugu, euskal herritarrok gure etorkizunaz erabakitze-ko dugun eskubidea aldarrikatzeagatik”.

EHBildu eta EAJren babesa

EHBildu eta EAJ-ko udal ordezkariak babestu zuten mozioa. Mozioko 3. puntuarekin, Herritzarturen egoitza atariko eraso salatzen zuten puntuarekin bat egin arren, beste bi puntuarekin desados agertu eta mozioaren aurka bozkatu zuten PSE-ko udal ordezkariak. “Galdeketa egiteko badira beste modu batzuk”, zioen Fermin Oruek.

Zubietako Eskolan, LH osoa progresiboki ezartzeko eskaera Jaurlaritzari

2010. urtean Eusko Legebiltzarrak, Zubietako Eskolari lotutako Legez besteko proposamen bat onartu zuen; Zubietako eskolako instalakuntzak hobetu, ikastetxea handitu eta Lehen Hezkuntza osoa modu progresiboan ezartzea. Zazpi urte igaro dira ordutik, eta Gasteizko Parlamentuak hartutako erabakia erdizka bete dela esan daiteke.



“Aukera ezin hobea da egindako inbertsioari etekina ateratzeko”, dio Zubietako Eskolako mozioak.

Begi bistakoa denez, Zubietako eskola handitu eta instalakuntzak hobetu dituzte. Aldiz, Lehen Hezkuntzako eskaintza ez dute zabaldu. Eta horixe, datorren ikasturtetik, 2017-18 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Lehen Hezkuntza osoa progresiboki ezartzea eskatzeko mozioa erregistratu zuen Zubietako Eskolaren komunitateak Usurbilgo Udalean. Eskaera horrekin bat egin zuen udalbatza osoak, maiatzaren 30ean egin zuten osoko ohiko bilkuran.

Instalakuntzak, LH osoa eskaintzeko prest

2014-15az geroztik zabalik duten eraikin berriari esker, Lehen Hezkuntza osoa ezartzeko moduan direla gogorarazten du testuak. Jangela zerbitzua baitute, eta 6-12 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko hezkuntza ziklo hau eskaintzeko beharrezkoak diren bi ikasgeletarako espazioak ere

ZUBIETAKO ESKOLA

2017-18 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Lehen Hezkuntza osoa progresiboki ezartzea eskatzeko mozioarekin bat egin zuen Udalbatza osoak

badituzte. “Aukera ezin hobea da egindako inbertsioari etekina ateratzeko”, dio Zubietako Eskolako mozioak.

Eskaera hazi dela ere nabarmentzen dute. Matrikulazio kopurua gorantz doa. Irailean abiatuko den ikasturte berri-rako, 45 haur izango ditu Zubietako Eskolak.

Zazpi urteren ondoren, berdin-berdin

Hau guztia kontuan izanda, udal gobernu taldetik harri-garritzat jotzen zuten aurreko

asteko osoko bilkuran, eraikina berritu eta beharrezko baliabideak izanda, Legebiltzarrak onarturiko legez besteko proposamena oraindik gauzatu ez izana. Ildo beretik mintzatu ziren baita EAJ-tik ere. LH osoa “aspaldi abian jartzekoa” zela zioten. Eta PSE-ko udal ordezkariak ere harrigarritzat eta ulertezintzat jotzen zuen “Legebiltzarreko akordioa ezin izan dela bete” ikustea, zazpi urte igaro diren arren.

EAJ-ren emendakina

Gai honen harira, EAJ-PNV udal taldeak emendakin bat aurkeztu zion Zubietako Eskolako komunitateak aurkezturiko mozioari. Testu honi, “Usurbilen ere Eskola Publikoa ezartzeko beharrezko pausoak eman ditzala” esaldia gehitzea proposatu zuen. Emendakina ordea gehiago osoz atzera bota zuen udalbatzak. EAJ eta PSEko udal ordezkariak alde bozkatu zuten arren, aurka agertu ziren udalbatzan gehiago osoa duten EHBilduko udal ordezkariak.

EAJ-k Usurbilek Eskola Publikoa izatea defendatzen du. Udal gobernu taldetik aldiz ez dute bideragarritzat ikusten Usurbilek bigarren eskola bat izatea. Hasteko, Udalak gai honetan duen eskumena oso mugatua dela gogorarazi zuten osoko bilkuran. EHBildutik gaineratzen zutenez,

EAJ eta PSE-ren agindupean dagoen Eusko Jaurlaritzak ez du asmorik Usurbilen eskola bat eraikitzeko, eta gobernu taldearen esanetan, “ez dugu uste egokiena beste eskola bat eraikitzea denik”.

Udalerrri honetan bi eskola izan ditugu iraganean, eta halako esperientziak bi komunitate ezberdin sortzea ahalbidetzen duela ohartarazten dute udal gobernu taldetik. Are gehiago, hainbat lekutan eskolak biltzen doazela ere gogorarazten dute. Horregatik, egun dagoen ikastola, denentzat izatea, ikastetxe honen izatera publikoa bermatzearen aukera babesten du EHBilduko koalizioak. Ikastola bakarra, integratzailea, komunitate ezberdinak bilduko dituen eskola izatearen aldekoa da koalizioa.



Mozal Legearen aurka eta ospitaleraturiko ekintzaileari babesa

Gai honi lotuta EHBilduk aurkezturiko mozioa onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz udal gobernu taldearen aldeko bozkekin, maiatzaren 30ean egin zuten osoko ohiko bilkuran. Mozal Legearen aurka agertu ziren arren, EAJ-ko udal ordezkariak aurka bozkatu eta PSE-ko zinegotzia abstenitu zen.

Mozioak Ertzaintzari Mozal Legea ez aplikatzea eskatzen dio, Eusko Legebiltzarrak iazko ekainaren 22an gehiengoz onartu bezala. “Gure babes eta erabateko atxikimendua eskaini nahi diegu, lege eskubide guztiak urratuz zigortu dituzten herritar libre guztiak”, eta kezka adierazten du, maiatzaren 13an “Usurbilgo tren-geltokian Mozal Legearen aurkako protesta baketsu batean larriki zauritu zen ekintzailearen egoera dela eta. Ahalik eta lasterren osatzea opa diogu”. Azkenik, zauritua dagoen ekintzaile honen aurkako ekinbide judizialik ez abiatzea eskatzen dio Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari.

Emendakina ez zen onartu

EAJ-k emendakin partziala aurkeztu zion EHBilduren



Tren-geltokian Mozal Legearen aurkako protesta baketsu batean larriki zauritu zen ekintzailearen aldeko elkarretaratzeari egin zen Sagardo Egunean.

MOZIOA

“Zauritua dagoen ekintzailearen aurkako ekinbide judizialik ez abiatzea eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailari”

mozioari. Mozal Legearen aurkako ekintza erasotzat jo eta eraso salatzea eskatzen zuten honako puntu hau eransita eskatzen zuten: “Mozal Legearen aurka, beste edozein helburu politikoaren alde bezala ere, bide demokratikoetatik aritzea ezinbestekoa ikusten du Udal honek. Hori dela eta, gure salaketa azaldu nahi dugu, pasa den larunbatean

Euskotreneko tren bati egin dako eraso”.

Emendakin hau EHBilduren mozioan txertatzearen alde bozkatu zuten EAJ eta PSE-k. Aurka bozkatu zuten EHBilduk eta honenbestez, gehiengo osoz ez zen onartua izan. Aurretik, adierazpenen tartean, EAJ-k salagarritzat jo zuten maiatzaren 13an Usurbilgo tren geltokian jazotakoa. “Hori ez da bidea” zioen PSE-ko udal ordezkariak. EHBildutik aldiz, gertaturikoari “eraso izaera ez diogu ematen” adierazi zuten, “desobedientzia zibilerako eskubidearen barne kokatzen dugu”. Mozal Legeak “euskarri herritarren adierazpen askatasuna urratzen” duela gaineratu zuten.

Bake-epaile titularra eta ordezkoa behar dira

Hala jakinarazi zion Euskal Herriko Auzitegi Nagusirako Gobernu Idazkaritzak apirilaren 18an Usurbilgo Udalarari. Alegia, Udalak bake-epaile titular berria eta honen ordezkoa izendatzeko jardunbidea abiatu behar zuela. Eskara honi aho bateko onespina eman zion udalbatzak, maiatzaren 30ean egin zen udal osoko ohiko bilkuran.

Ohiko prozedura baliatuko du Udalak. Deialdi honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihar ramunetik zenbatzen hasita, interesa duenak lan eskaintza honetara aurkezteko hilabete epea izango du. Eskararak udal erregistroan edota “Administrazioko Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko

dira”.

Deialdi honetara aurkeztu diren hautagaiek hiru baldintza bete beharko dituzte: Espainiar Estatuko nazionalitatea izatea, adinez nagusia izatea eta “Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303., eta 389. artikuluek Kargu judizialeko aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kasuak ez edukitzea”.

2. Berdintasun Plana, gauzatzen hasteko prest

Berdintasunerantz bidea jorratzen segitzeko tresna eraginkorra izan nahi du, udalbatzak aurreko aste-ko osoko bilkuran aho batez onartu zuten Usurbilgo Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 2. Planak. Iaz herritarren parte hartzean oinarrituriko prozesuaren eta azken hamarkadan eginitako lanketaren emaitza da plan hau. 2008an heldu zion gai honi Udalak. Gai honi buruzko diagnosis osatu zuten lehenik eta horretan oinarrituta 2010-14 urte atean indarrean egondako lehen plana onartu zuten. Bigarren plan hau ere lau urtez izango da indarrean; 2020. urtera arte. “Usurbilek datozen urteetan, berdintasunaren ikuspegitik, dituen erronkak eta helburuak finkatu dira; horiek lortzeko egin beharreko ekimenak ere zehaztu direlarik”, berri eman dute Udaletik.

54.000 euro, jarduerak burutzeko

Plan malgua izango da, aldaerak onartuko dituena. Etengabe berrikusi, ebaluatu, berri eta moldatuko da. Eragile ezberdinen arteko elkarlan, hausnarketa, eta adostasunez bideratuko dira egitasmoak. Plan honetan aurreikusitako jarduerak burutzeko urtero, 2017-2020 urte artean, 54.000 euro bideratzea aurreikusten du Udalak. Guztira, 216.000 euro.



Bigarren plan hau ere lau urtez izango da indarrean; 2020. urtera arte.

Adinekoen egoitza izateko beharrezko gestioak egitea eskatu diote Udalari

6⁵ urtetik gorako zergapeko 1.026 herritar ditu Usurbilek. 300 bat lagunek lehen, bigarren edo hirugarren mailako ezgaitasunak dituzte. 18 erabiltzaile ditu Eguneko Zentroak, beste 4 usurbildar herritik kanpora joan beharrean aurkitzen dira. Beste 12 lagun daude Puntapax Eguneko Zentrarako itxarrote zerrendan. 14 bizilagun adinekoen egoitza ezberdinetan sakabanatuak daude, beste 4 itxarrote zerrendetan. Donostialdeak 300 plaza baino gehiagoko defizita du.

Datuokin udalerrri honek duen begi bistako gabezia agerian utzi nahi izan dute Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatutako elkarteek. Hiru elkarteek zenbakiok eta xehetasun gehiago biltzen zituen mozio bateratua aurkeztu zuten maiatzaren 30eko udal osoko ohiko bilkuran. Aipatu datuen berri ematearekin batera, udalerrri honek adinekoen egoitza falta duela eta horixe eskatu zioten mozio bidez Usurbilgo Udalari; "beharrezko gestioak egin ditzala, bai Aldundiarekin eta baita Matia



Une honetan dagoen gabezia agerian utzi nahi izan dute Usurbilgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea eta Aginagako Arrate jubilatutako elkarteek.

BEHAR HANDIA

18 erabiltzaile ditu Eguneko Zentroak, beste 4 herritik kanpora joan beharrean aurkitzen dira. Beste 12 lagun daude Puntapax Eguneko Zentrarako itxarrote zerrendan

Fundazioarekin beharrezko zerbitzuak garatzeko Txaragaina deritzon zonaldean, edukiera egokiduna eta beharretara egokitua".

2.375 sinadura

Mozioa aho batez onartu zuen udalbatzak. 2.375 herritarren sinadura ere bildu dituzte jubilatutako elkarteek. "Arazo oso

larria da", zioen udalbatza aretoko osoko bilkurara gerturatu ziren jubilatutako elkarteetako ordezkarietako batek. Gai honen jarraipena egitea eskatzen zuten, "nahiz guretzat ez izan, ia gure ondorengoentzat lortzen den" adinekoen egoitza izatea, zioen.

Foru Aldundiarekin batzeko da Udala

Udalak egunotarako biltzea eskatua du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Jasotako sinadura eta mozioaren berri ematekoa da Usurbilgo Udala hitzordu horretan. Eskaeon alde egiteko konpromisoa bere gain hartu zuen udal gobernu taldeak osoko ohiko bilkuran.

Saiakerak aspalditik

Udalbatzak aho batez onarturiko mozioak gogoraraten duenez, Usurbilek adinekoen egoitza izateko hamaika saiakera egin dira iraganean. 80. hamarkadan lautan ahalegingindu zen Udala. Gerora, 2010. urtean heldu zitzaion berriz gai honi. "Matia Fundazioak Kalezarko komentuen itxiera medio, honako ezaugarriak proiektua aurkeztu zuten: 151 plazako zaharren egoitza, 50 plazako eguneko zentroa eta finantzaketa laguntzeko 35 etxebizitza Txaragainako lursailean".

Presatu gaiak

Ordutik Aldundiarekin hainbat negoziaketa egin dira, nahiz ez duten emaitza argirik izan. Eguneko Zentroko plaza kopurua handitu den arren, ez da aski herri honek dituen beharrei erantzuteko, eta gaurkoz Aldundiak ez du diru partidarik aurreikusten Usurbilen, adinekoen egoitza eraikitzeko. Presatu gaiak. Hainbat etxetan mendekotasun egoeran diren hainbat adineko herritar daude, eta beraien zaintzaren ardura senideen, bereziki emakumeen esku dago.

2016ko GHKren tarifen aurkako auzi errekurtsioan atzera

Azken udal osoko ohiko bilkuran udalbatzak aho batez berretsi zuen dekretuarekin, "Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioaren Batzar Orokorak 2015eko abenduaren 22ko bileran hondakinen goi kudeaketa zerbitzugintzaren 2016 ekitaldirako tarifak onartu zituen ebazpenaren aurkako administrazioarekiko auzi erre-

kurtsioan atzera egitea" erabaki zuten.

Aldiz, 2017ko GHK-ko tarifen aurkako auzi errekurtsioa mantentzeko asmoa du Udalak. Dekretu bidez hala erabaki zuen udalak eta otsailaren 28ko osoko ohiko bilkuran berretsi zuten udal ordezkariak gehiengo osoz. Auzi errekurtsioak aurkeztera bultzatu

dituen arrazoiak bi dira nagusi, udal gobernu taldearen esanetan. GHK-k onarturiko tarifek hondakinen kudeaketaren bi printzipio urratzen dituztela irizten dio Udalak. Batetik, "praktika onak saritzea, txarrak zamatzea" aldarriztat duen printzipioa. Baita azpiegiturak bertara eramandako hondakinen bidez ordaintzea ere.

2018an, uztailearen 2a jai Usurbilen

Santixabel Eguna aurten goan igandez egokituko denez, Usurbilgo jai egun ofiziala ekainaren 30a izendatzea erabaki zuen Usurbilgo Udalak iaz. Urtebete barru ordea, uztailearen 2a astelehenez egokituko da. Udal gobernu taldeak, urtebete barru egun hori jai egun izendatzea proposatu zuen aurreko asteko osoko ohiko bilkuran. Aho batez onartu zuen udalbatzak.

Udako jardunaldian, azkar batean izen emateko deialdia

Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekua jardunaldia antolatu dute Usurbilgo Udalak, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eta Jakin Fundazioak uztailaren 13 eta 14rako Usurbilen, hiru erakundeok datozen hiru urteotarako martxo amaieran sinatu zuten lankidetzaz hitzarmenaren baitan.

Usurbilgoa, UEUren udako ikastaroen baitan ospatuko den Jakin Jardunaldia izango dugu. 12 aditu eta aritu bilduko ditu hitzorduak. Euskara, generoa, jatorria eta klasea, lau esparru hauen arteko talka eta elkarguneak aztertuko dira. Ikastaroaz gain, kultur programazio zabalarekin osatuko da jardunaldia. Usurbildarrak parte hartzera animatzen dituzte. Doakoak izango dira uztailaren 13 eta 14rako Usurbilen antolatu diren ekimenak, baina aurrez izena eman beharra dago.

Arrakastatsua

Matrikulazio epea zabalik dago. Jada berrogeitik gora lagunek izena eman dute. Harrera ezinhobe izaten ari da beraz, eta horregatik, interesa duenari ahal bezain laster izen ematea aholkatzen diote, “ziur baikaude beteko dela”, aurreko astean antolatzaileek Donostiako udal liburutegian egin zuten aurkezpenaren baitan, UEU-ko zuzendari Iñaki Alegriak zioenez.

Lankidetzaren balioa gorai-patu zuen. “Gutxitan bezalako lankidetzaz lortu dugu”. Hiru urterako gutxienik bai. Jakin Fundazioarekin hiru urte daramatzate elkarlanean, lankidetzaz horretara batu da orain Usurbilgo Udala. “Azpimarratzekoa eta pozgarria da Usurbilgo Udalak kulturaren eta ezagutzaren alde egin duen



Usurbilgoa, UEUren udako ikastaroen baitan ospatuko den Jakin Jardunaldia izango dugu. Uztailaren 13an eta 14an, hamabi aditu eta aritu bertaratuko dira.

UEU

Interesa duenari ahal bezain laster izen ematea aholkatu nahi diote. “Ziur baikaude beteko dela”

apustua”, nabarmendu zuen. Iragarri zuenez, jardunaldi hau “gaietan sakontzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko” gune aproposa izango da.

12 aditu eta aritu gonbidatu

Euskara, generoa, jatorria eta klasea gurutzatzen diren lekuaz ariko dira jardunaldian, “bidegurutzetik bidegurutzetaz”. Eguneroko bizitza eta bizikidetzaz hizkuntza, genero, klase sozial eta jatorriaren arteko harremanetan josten denez, harreman horiek sortarazten dituzten galdera eta erronkei erantzuten ahaleginduko dira. “Hizkuntza eta kultura aniztasunaz, euskararen normalizazioaz, beste hizkuntza ez-hegemonikoentzako euskal hiztunen ekarpenaz, klasearen egungo esanahiaz, prekaritateaz, botere harremanez, ahalduz, borroken aliantzetaz nahiz jendarte justu eta berdinezalegoaren eraikuntzaz jardungo baitu ikastaroak”.

Bidegurutzetik horri, elkargune feminisotik erreparatuko zaio, 12 aditu eta arituren

laguntzaz. Jardunaldiak euskaraz izango dira, baina iragarri dutenez, beste hizkuntza ez hegemonikoak entzungo dira. Kasutan noski, itzulpen zerbitzua eskainiko da. “Hizkuntza hegemonikoei lekuri ez ematea da asmoa, haiei lekua ematen zaien aldiro beste hizkuntza guztiak galtzen ateratzen direlako”, zioen Jakin Fundazioko zuzendari Lorea Agirrek. Jardunaldiok emandakoa Jakinek udazkenean argitaratuko duen alean argitaratuko dute.

Hausnarketarako plaza

Egitarau oparo eta interesgarria josi dutela, eta halako jardunaldi bati Usurbilek tokia, “gure plaza” eskaintzeagatik pozik agertu zen agerraldian Xabier Arregi Usurbilgo alkatea. Giro lasai eta lagun artekoan, “hausnarketarako toki bat eskaintzea, hori izatea nahi genuke Usurbil bi egun horietan”.

Donostiako periferian egonagatik, herriei kultur eragile izatea ere badagokiela aldarrikatu zuen. “Nonbait, denok gara Donostiako eskualde, gu ordea horrekin konforme ez eta gure nortasuna aldarrikatu nahi dugu”, zioen. Bertaratzen direnak “eskuzabalik hartuko zaituztegu” adierazi zuen. Positiboki baloratu zuen baita, UEU eta Jakinekin garatzen ari diren elkarlana.

Udako Jardunaldia

Uztailak 13, osteguna

■ 09:00-09:10 Ongi etorria: Lorea Agirre (Jakineko zuzendaria).

■ 09:10-09:30 Sarrera: Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel (Kazetaria eta EHUko irakaslea).

■ 09:30-10:15 Mari Luz Esteban (Antropologoa, EHUko irakaslea).

■ 10:15-11:30 Ignazio Aiestaran (Filosofoa, EHUko irakaslea).

■ 11:45-12:30 Maria Reimondez (Itzultzaile, interpretari eta poeta).

■ 12:30-13:15 Itziar Gandarias (Psikologo soziala, Deustuko Unibertsitateko irakaslea).

■ 15:00-17:00 Mahai-ingurua: Mari Luz Esteban, Ignazio Aiestaran, Itziar Gandarias, Maria Reimondez. Moderatzailea: Idurre Eskisabel.

■ 17:00-17:30 Laburbilduma: Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina.

■ 18:00 Bisita gidatua Jose Luis Zumetaren estudioa.

Izen ematea: info@kultour.pro
■ 22:00 Gaualdia Mikel Laboa plazan, Joseba B. Lenoir, Miren Narbaiza, La Basu.

Uztailak 14, ostirala

■ 09:00-09:30 Amelia Barquin (Kulturartekotasunean aditua, HUHEZIKO irakaslea).

■ 09:30-10:00 Petra Elser (Banaiz Bagara elkarte zuzendaria).

■ 10:00-10:30 Tarana Karim (SOS Arrazakeria).

■ 11:00-11:30 Jessica Chalampunte (Ecuador Etxea).

■ 11:30-12:00 Aminata Diop Seck (Amher elkarte kidea).

■ 12:00-13:30 Mahai-ingurua: Jessica Chalampunte, Aminata Diop Seck, Amelia Barquin, Tarana Karim eta Petra Elser (itzulpena egingo da).

■ 13:30-14:00 Laburbilduma: Maialen Lujanbio, Sustrai Colina.

■ Matrikulazioa eta informazio gehiago: ueu.eus

■ Antolatzaileak: UEU, Jakin Fundazioa, Usurbilgo Udala.

Espazio Publikoaren Berrantolaketa

KALE

IREKIAK

Usurbil

Usurbil Kale Irekiak prozesuan, herriko espazio publikoaren eta mugikortasunaren gabeziak eta beharrak aztertu zenituzten. Hortik, proposamenak ere luzatu zenituzten, besteak beste, herriaren mugikortasun eskema eta espazio batzuen diseinua definituz.

Orain, parte hartzean adierazitakoa dokumentu tekniko batean jaso nahi da, herri-lanak edo eta birmoldaketak egiteko kale, plaza eta auzoetan. Plangintza definitzeko, zuek erabakiko duzue proposatutako aldaketa guztietatik, zein izan behar den gauzatzen lehena, zein bigarrena eta ondorengoak.

ASKATASUNA PLAZAN AUTOBUS GELTOKI BERRIA

KALE NAGUSIA OINEZKOTU

BIZIKLETA BIDEAK HOBETU ETA BERRIAK SORTU

AGINAGAKO FRONTOI INGURUA OINEZKOTU ETA ESPAZIOA HOBETU

ETA ABAR ...

13

Ekainak

Potxoenea
18:00 asteartea

Mugikortasun antolamendu berria

Parte hartze prozesuan izandako emaitzak aztertuko ditugu, eta gogoratu zeintzuk izan ziren herriko espazio ezberdinetarako mugikortasuneko planteamendu eta proposamen nagusienak.

Honetaz gain, parte hartzearen emaitzetan oinarrituta, Berrantolaketa Planean definitu den mugikortasun antolamendu orokorra azalduko dizuegu, herriaren eskema berria guztiok ulertzeko.

20

Ekainak

Potxoenea
18:00 asteartea

Hobetze lanen lehentasunak

Herriko eskema berria ezagututa, herriko txoko ezberdinetako lanak egiteko proposamen garrantzitsuenak azalduko zaizkizue. Horien guztien artean, erabakiko duzue zeintzuk ikusten dituzuen lehentasunezkoak, garrantzizkoenak eta egingarrienak. Informazio horrekin, Espazio Publikoaren Planean denbora-plangintza gauzatuko dugu, zuek esandako lehentasun ordenaren arabera herria eraikitzen eta hobetzen joateko.



Usurbilgo Udala



USURBIL
oraina da geroa



Klik! batean

Sariakola

“XV. mendeko agiri batean agertzen da lehenbizikoz Sariako ekoizpen multzoa. XIX. mendearen erdialdera gelditu ziren betiko burdinolaren gurpilak. Gerora, instalazio horiek baliatuz eta berriak eraikiz, jutea lantzeko lantegia jarri zuten abian.

Usurbil eta Orioren arteko mugatik gertu, baina erreka haruntza dagoenez, zorrotz izanda, Orioko udalerrian kokatzen da, baita ubidearen zatirik nagusia ere. Baina urtegiko presa, aldiz, bi herrien artean kokatzen da”.

Iturria: ‘Usurbilgo ondarea ezagutzen’ liburua (NOAUA, 2009).

Argazkia: Ion Markel



Munduko dantzak, Sutegiko oholtzan

Dantza kultura da izenburupean, Warda Mallalek zuzenduriko munduko dantzen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da larunbat honetan, ekainak 10, arratsaldeko 18:00etan hasita Sutegiko auditorioan, sarrera sinboliko baten truke.

Munduko dantzen nahasketa eskainiko dute, Usurbila datozen Donostia, Hernani edota Bilboko talde profesional ezberdinek; polinesiar dantza, ekialdeko dantzak, indiarrak... Oraingoan ordea, hip-hop izango omen da emanaldiko protagonista. Gonbidatuen artean, estatuan dantza eskola garrantzitsuenetarikoa, Valentziakoan lan egiten duen Sergio Alcoverrek bisitatuko gaitu. Bere garaian "Fama" izeneko telebista saio arrakastatsuko dantza eskolako irakasle izan zenak.

Kultur adierazpidea

Emanaldiokien dantza mugimendu soil bat baino gehiago, kultura, herrialde bakoitzak bere emozioak adierazteko, kultura agertzeko eta gerturatzeko duten modua dela ere badela islatu nahi dute.



Larunbat honetan Sutegin, puntako ikuskizuna 18:00etatik aurrera.

Warda Mallalek irakatsi ohi duen ekialdeko dantzen onurak azpimarratzen ditu. Haur, heldu nahiz adinekoentzat ikasterraza da, musika gabe ere ikasi baitaiteke. Hezurretako minarentzat antidoto egokia dela dio, odol zirkulazioa hobetzen edota gorputz posturak zuzentzen laguntzen du, zoru pelbikoa lantzen da gainera. Gorputz osoa baita. Eta emozioak. "Sineztzina da autoestima zenbat irabazten den dantza honen bidez. Bizi kalitatea hobetu eta segurtasuna irabazten da", dio Mallalek ikasleei buruz.

Sortzez marokarra, ibilbide oparoa egin du munduko dan-

tzak gure artean irakatsi eta zabaltzen. Udala eskertu nahi du Wardak, ekitaldiok antolatzen lagundu eta dantza hauek jendearengana gerturatzeko egin ohi duen ahaleginagatik.

Emanaldi hau ikasturte amaieran ospatuko da. Irailetik aurrera, Einean Guraso Eskolak antolatutako ekimenen baitan, eskainiko duen funky eta hip-hop ikastaroan parte hartza animatzen du. "Apuntatu, dantzok ezagutu eta proba egin dezatela. Ia etorkizunean Usurbilgo hip hop talde bat izaten dudana, lehiatu edota emanaldiak eskaintzeko", adierazi dio NOAUA!ri.

Ekainaren 14an, Atlas Geopoetikoa liburuaren aurkezpena

Ekainaren 14an asteazkena, "Atlas geopoetikoa_1" liburuaren aurkezpena egingo dute Usurbilgo frontoian. Mixel Etxekoparrek eta aginagatar batek aurkeztuko dute liburua eta ekitaldiak 30-40 minutu iraupena izango du. "Behin aurkezpena bukatuta, leku berean dantza saio ireki bat izango dugu. Etxekopar eta Bedaxagar gidari izango

direrarik. Bertan muxikoak, kontrapasak... dantzatuko ditugu betiere Zuberoako kutsuarekin", antolatzaileek aditzera eman digutenez. "Aukera paregabea daukagu herritarrok bi musikari handi hauekin gozatzeko eta, beraz, animatu".

Antolatzaileak: Orbeldi Dantza Taldea, Aginagako Jai Batzordea eta Nafartarrak Taldea.



Liburuan Aginaga ageri da. Aurkezpena Usurbilgo frontoian egingo da, ekainaren 14an 19:00etan.

"Zein da zuretzat herriko zuhaitzik ederrena?"

Sormena lantzeko aukera ederra eskaintzen du Usurbilgo jaietako XV. Pintura Lehiaketak. Aurten, ekainaren 29an, 16:30etik aurrera frontoian. Hau izango da sormen lanetarako gaia: "Zein da zuretzat Usurbilgo zuhaitzik ederrena?". Hasi buruari eragiten.

Bi bertso paper lehiaketa

Ekainaren 19ra arteko epea dago 16 urtetik gorakoei nahiz LH 5 eta 6 mailetako ikasleei zuzenduriko Bertso paper lehiaketetako lanak aurkezteko. Joxe Martin Sargardia plaza, Usurbil 20170 helbidera helarazi behar dira. Egileak izengoitiz aurkeztu beharko du lana.

16 urtetik gorako usurbildarrei zuzenduriko txapelketaren kasuan, inoiz argitaratu gabeko 8-10 bertso idatzi beharko dira. LHko ikasleei zuzendurikoan, bi bertso, hiru gaietako baten inguruan: Santixabelak, udako oporrak edo Usurbilgo txokoak. Txapelketon sari banaketa, ekainaren 29ko jaietako bertso saioaren amaieran ospatuko da.

Zikero janerako txartelak salgai

Asteburutik aurrera, Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan eskuratu ahalko dituzue, 25 eurotan. Ikasle eta langabetuek 15 eurotan. Zikero-jana uztailearen leian ospatuko da, larunbatez, Askatasuna plazan.



ARTZABAL

 BASERRIA · JATETXEA

EGUNEKO MENUA KARTA
 PLATER KONBINATUAK
 OGITARTEKOAK · TOSTAK
 MENU BEREZIAK

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

ELORZA

 OBRAK ETA
 ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Mugikortasun Planeko lehentasunak finkatzeko aukera

Udazkenean egin zen “Kale Irekiak” parte hartze prozesua bere fruituak ematen hasia da. Prozesu hartan, usurbildarrek Mugikortasun Plana zehazteko aukera izan zuten. Usurbilgo espazio publikoaren eta mugikortasun ereduaren gabeziak eta beharrak aztertu eta horien gaineko proposamenak bildu ziren. “Modu horretan, herriaren mugikortasun eskema eta espazio publikoaren diseinua definitzeko lehen urratsa eman zen”, berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

Jasotako ekarpenak dokumentu tekniko batean bildu ditu Usurbilgo Udalak. “Mugikortasun jasagarriaren irizpideetan oinarrituta, kale, plaza eta auzoetako herri-lan edo eta birmoldaketa proposamenak jaso dira” eta orain dokumentu hau aurkeztera



Dokumentu bat aurkeztera doaz herritarrei, ekainaren 13 eta 20rako deitu dituzten lan saioetan.

doaz herritarrei, ekainaren 13 eta 20rako deitu dituzten lan saioetan.

“Guztion artean erabaki dezagun”

“Aldaketa horiek guztiak Espazio Publikoaren Planean jaso, eta Denbora-Plangintza batean ordenatuko dira. Plangintza

definitzeko, usurbildarron laguntza eskatzera gatoz berriz ere. Hau da, guztion artean erabaki dezagun proposatutako aldaketa guztietatik, zein izan behar den gauzatzen lehena, zein bigarrena eta ondorengoak”, adierazi dute udal ordezkariak. Honatx Udalak iragarri dituen bi lan saioen gaineko zehaztasunak:

Deialdiak

Ekainak 13, asteartea

18:00 Lehen lan saioa Potxoenean. Udazkeneko parte hartze prozesuko emaitzen azterketa. Mugikortasun eskema eta espazio publikoaren eraldaketarako proposamen nagusien erreposoa, eta Berrantolaketa Planean definitutako mugikortasun antolamendu orokorrari buruzko azalpenak.

Ekainak 20, asteartea

18:00 Bigarren lan saioa Potxoenean. Gune ezberdinetako lanak egiteko proposamen garrantzitsuenen azalpenak. Lehentasunezkoak, garrantzizkoenak, egingarrienak proposatzeko aukera izango da. “Informazio horrekin, Espazio Publikoaren Planean denbora-plangintza gauzatuko da”, berri eman dute Udaletik.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Kaiola, hondakinez betetzen berriz

Lurrera hondakinik ez dela bota behar kontzientziatzeko kaiola plazara atera du berriz Usurbilgo Udalak. Udazken eta negu partean txoko ezberdinetan ikusgai izan genuen, eta orain, Mikel Laboa plazan kokatu dute berriz.

Ondoko irudia ikusita, oraindik ere zer hobetua badugula dirudi. Kaiolak aste-bete pasatxo darama herri erdigunean. Dagoeneko udal langileek lurtean aurkitutako hondakinez betetzen ari da berriz; litxarrerria poltsak dira gehienak.

Kanpaina honekin, hondakinak lurrera ez botatzeko jarreran eragin nahi du Udalak. Zer jokabide dugun bis-



Udazken eta negu partean txoko ezberdinetan ikusgai izan genuen, eta orain, Mikel Laboa plazan kokatu dute berriz.

taratu nahi du, kontzientziatu gaitezen. Gogoan hartu eta praktikara eramane beharrezko mezu argi bat du kaiolak. “Lurrera botatzen ditugun poltsa hauekin, badakizu

zenbat gauza lor dezakegun? Erabili zakarrontzi horiak, ez bota lurrera. Etxean egiten duzuna, kalean zergatik ez? Herriak eta ingurugiroak eskertuko dizu”.

Erraustegiko lanen esleipenaren aurka FCCk errekurtoa jarri du

Abenduaren 27an erraustegia eraiki eta kudeatzeko deialdira aurkezturiko enpresen sailkapena onartu zuen GHK-k. Lanak esleitzeko puntuazio altuena Urbaserrek jaso zuen. FCC bigarren geratu zen.

Lanak ez dira etengo

Orain, erraustegiko eraikitze lanen esleipenaren aurkako administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu du FCCk, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Auzitegi Nagusian. Foru Aldunditik diotenez, lanek aurreikusitako moduan jarraituko omen dute.

Gero arte, usurbildarron musika etxeari

Agurrik ez, gero arte baik. Horixe adierazteko eguna izatea nahi du Zumarte Musika Eskolak, ekainaren 17rako antolatu duen jaialdia. Hiru hamarkada luzez egoitza izan duten Kale Nagusiko Villa Pilarretik badoaz musikariak ikasturte amaiera honetan. Aldi baterako, bi urterako hain zuzen. Ezinbestean, nahiz pozteko moduko arrazoiak dauden tartean. Heldu baita Zumartekoentzat hainbeste itxaroten ari ziren unea; eraikina berritu eta handitzera doaz.

Egungo egoitzak ez baititu betetzen oinarrizko segurtasun eta irisgarritasun baldintzak. Intsonorizazio falta nabarmena du. Ohikoa da, gela bateko eta besteko instrumentu soinu nahastea jasan behar izatea ikasle eta hezitzaileek. Gainera, berrogeirekin hasi eta 220ra arte hazi den ikasle kopururako txiki geratu da eskola. Esan beharrik ez da, horrek guztiak eguneroko jarduna zer tamainatan baldintzatzen dien.

“Zumarteri handitzea tokatzen zitzaion”

Errelebo betean den musika eskolako zuzendaritza batzordeko kideekin bildu gara. Haiek ondo oroitarazi dutenez, “halako eraberrikuntza egiteko garaia zen. Etxe hau erosi zenean ere bere urteak bazituen. Orain beste 32 urte gehiago”. Ordutik, gainera biztanleria kopurua nabarmen hazi da, herriko zerbitzuak ugaritu eta indartu dira. Honenbestez, orain, “Zumarteri handitzea tokatzen zitzaion”. Argi dute, musika eskolan ikasi nahi duen orori lekua eman nahi diote, ez dute instalakuntzak ezta usurbildarek ordaindu beharreko kuotak, herritarrentzako lagun giroan musikaz ikasi, gozatu eta bizi ahal izatea mugatzerik nahi.



Musikarienez gain, Orbeldi Dantza Taldekoen egoitza ere izango da etorkizuneko.

ZUMARTE MUSIKA ESKOLA

“Eraikin berritua handiagoa eta ederragoa izango da noski, baina oraingo itxura mantenduko du”

Gune partekatua

Eraikin berriaren maketa modukoa ikusia dute musika eskolakoek. Handiagoa eta ederragoa izango da noski, etorkizuneko egoitza. Oraingo itxura mantenduko du. Ekainaren 17ko jaialdia ospatuko den eraikinaren atzealdetik (Txaramunto aldetik) handituko dute. Musikarienez gain, Orbeldi Dantza Taldekoen etxea ere izango da etorkizuneko.

Lau gune bi urtez

Birgaitze proiektu hau elkarlanean diseinatu dute Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak. “Kanpoko itxuraz gain, barrukoa antolatzeko ere aintzakotzat hartu gaituzte

eta hori asko da”. Horregatik, lerroon bidez, lanok gauzatu ahal izateko Udalak eginiko ahalegina nabarmendu nahi dute Zumarteko kideek: “Lehentasun bat eman dio eskolari eta hori eskertzekoa da”.

Eraberritze lanek iraungo dute bi urteetan zehar, musikariak herriko gune desberdinetan sakabanatuko dira. Batetik, Udarregi Ikastolako bi gela baliatuko ditu Zumartek. Besteak beste, instrumentu indibidualetan trebatzen ari direnak, edota Musika Mintzairakoak bilduko dira bertan. Santueneko frontoi atzeko lokalean elkartuko dira bestalde, kitar edota baterijoleak, pop-rock taldeak. Eta Zumarteren bulego berriz, garai bateko Atez Ateko Bilketaren informazio gunean, Puntapax kalean, Artzabal igaro eta Guria garagardotegi ondoan kokatuko dute.

“Ez dira urte errazak izango, pazientzia beharko dugu”

Maiatza amaieran bideratu zuten 2017-18 ikasturteari be-

girako matrikulazio kanpainaren baitan jakinarazi zitzaizkion izena eman zuten ikasleei, datozen aldaketen berri. “Ez dira oso urte errazak izango eta pazientzia eskatzen dugu. Ditugun espazio eta ordutegiakin moldatu beharko gara”, ohartarazi dute Zumartetik. Bi urteren ostean panorama goitik behera aldatuko da, askoz hoberako noski.

Auzolanerako deia

Lanak hasi aurretik, eraikina hustu beharra dute. Ekainaren 17ko jaialdia igarota, mudantza lanei ekingo die Zumartek. Material guztia, hurrengo bi urteotan behin behinean izango dituen lokaletara garraiatzeko bi egun hitzartu ditu Musika Eskolak udal brigadakoekin; uztailaren 5a eta 6a. “Traste piloa dago eta horiek denak garraiatzeko laguntza beharko dugu”, adierazi diote NOAAU!ri. Laguntzeko deia luzatu nahi dute lerroon bidez. “Animatu!”.

Lehenengo kultur etxearen egoitza izan zen

Zumarte, egun, ibilbide luze eta oparoena izan duen herri eragileen artean dugu. Txistulari taldeak idatzi zituen musika eskolaren biografia honetako lehen letrorak. Baina ez egungo egoitzan; udaletxe atzean, gero Potxoenea behean... Musikak etxe desberdinak izan ditu iraganean Usurbilen. Hainbat herritar bolondresen arteko auzolanak ahalbidetzen zituen leku aldaketok. Musikarien mugimendua hazten eta ikasleak instrumentu gehiagotan trebatzen hasi ziren. Espazioa txiki geratzen zihoan.

Martin Larrañaga alkate zela, 1983an abiatutako legegintzaldian zehar bideratu eta diseinatu zuten egun ezagutzen dugun musika eskola. Hutsik zegoen Villa Pilar eraikina erostea erabaki zuten. Diruaz gain, musika bera giltzarria izan zen erosketan. Terraiza, baratz, eta iturri natural eder askoa zuten eraikin eleganteak, musikarekin lotura estua baitzuen Zumarte aurreko garaitik ere. Herrian zegoen piano bakarrenetakoa omen zuten bertan. Jabeak Udalaren erosteko



Errelebo betean den musika eskolako zuzendaritza batzordeko kideekin bildu gara.

“Martin Larrañaga alkate zela bideratu eta diseinatu zuten egun ezagutzen dugun musika eskola”

eskaera jaso zuenean, hasieran ez omen zuten saldu nahi, baina eraikina musika eskolara bideratuko zela jakin zuenean, saltzea errazago egin omen zitzaion.

Errioko irlaren omenez

Eraikina erosita, Musika Eskola izateko elkarte tramitatu zuten, eta izena ere jarri zioten. Arantzazu Aranburuk proposaturikoa, Zumarte. Batetik, Zumar-

tegi industriagunea eraikitzekeo desagertzera zihoan izen bereko Ori ibaiako irlatxoaren omenez, eta baita Pablo Orbeldik dultzaina jotzen zituen piezetako batek Zumarte izena zuelako ere.

Usurbilgo kultur etxe nagusian bilakatu zen Zumarte. 1985ean atea ireki zituenetik, musikarien txokoa izateaz gain, euskaltegia ere bertan kokatu baitzen, hainbat asanblada ere bertan egiten ziren, baita ikastaroak ere... Gero eraikina txiki geratu zen denentzat. Pixkanaka eragile bakoitza beste lokal batzuetara lekuz aldatu zen. Azkenean

eraikina osorik musikariena izatera heldu zen.

Boluntarioen auzolan itzela

Zumartek irabazi asmorik gabeko eta kultur musika sustatzea helburu duen elkarte gisa funtzionatu izan du hasieratik. Eraikina Udalarena da, baina hortik aurrerako kudeaketaren ardura elkartearen gain dago. “Boluntarioen auzolan ikaragarria dago honen atzean, hainbeste urtez”, nabarmendu dute Zumartetik. 32 urteko ibilbide emankor honetan, aipatzekoak dira ekainaren 17ko jaialdiak oroitu dituen hainbat une; urteurren jaialdiak, abesbatzarekin 55 lagun Islandiara joan zirenekoak, elkarbizitza asteburuak... Hainbat irakasle izan ditu Zumartetik, gerora esaterako, Euskadiko Gazte Orkestra Sinfonikoa edota beste eskolak zuzentzera igaro direnak. Zabaltzen joan da musika instrumentuen formazio eskaintza. Ikasteko moduak aldatzen. Ikasketa prozesu indibidualetik, taldekako lanketa nagusitzen joan da. Ibilbide oparoa izan du Zumartek. Etapa berri, eta ziur, luzeago baten atarian da orain.

Ekainaren 17an egingo da festa Txaramunto aldean

Aurreko urteetan garai honetan agurtu izan du Zumartek ikasturtea, aste oso batez antolatu izan dituzten kontzertu desberdinekin. Oraingoan, emanaldi ia denak egun eta gune bakar batean bildu dituzte; ekainaren 17an, Zumarte atzealdean, Txaramunto kalean. Ikasturte amaiera, berritu eta handitzera doazen eraikinaren agur festan bilakatu da oraingoan:

Ekainak 12, astelehena

■ 18:30 Organo kontzertua Salvatore Elizan.

Ekainak 17, larunbata

■ 10:00 Txistulari eta trikiti-



16:00etatik 20:00etara kontzertuak iragarri dituzte: abesbatzak, txistulariak, pop-rock taldeak...

lari-panderojoleak kalejiran.

■ Musika Eskolaren bueltan: Egunean zehar, musika eskolaren urteotako ekitaldietako argazki eta bideo proiektzioa Zu-

marteko eraikinaren barruan.

■ 11:00-13:30 Kontzertuak. biolin, klarinete, txaranga taldeak, Musika Txokoko ikasleena...

■ 13:30 Bazkari girotua. Jatekoa norberak eraman behar du, edatekoa Zumartekoek jarriko dute. Taberna txiki bat ere egongo da.

■ 16:00-20:00 Kontzertuak: abesbatzak, txistulariak, pop-rock taldeak...

■ 20:00 Kalejira Eibarko Ustekabe txarangarekin Usurbilgo kaleetan zehar.

■ 21:30 Afari herrikoia udaletxe aurreko plazan. Txartelak 10 eurotan salgai Antxetan eta Zumarten, ekainaren 13ra arte. Menua: Antxeta jateak sukaldaturikoa.

■ Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

Ekainaren 16an, antzerki bakarrizketa laburren lehen gaubela

Atea Teatrok antolatuta du hitzordua ekainaren 16an 20:30etan Sutegin. Sarrera 6 eurotan eskuratu ahalgo da. Ordubete eta hoge minutuko saioan, 5-20 minutu 6 antzerki pieza laburrez gozatzeko aukera izango da, batzuk euskaraz, besteak gaztelaniaz:

Miren Segovia: "Entzuleentzat nire lehen bakarrizketa".

Esther Uribe: "Cada día es sólo una vez al día".

Enrike Amilibia: "Marioren bakarrizketa".

Iñigo Dierez: "Nire ingurua"



Amaia Irazabal eta Telmo Irureta, gaubelan arituko diren bi aktore.

Telmo Irureta: "Toquecito minus".

Amaia Irazabal: "inor.ez.dator".

Lehen BookTuber Lehiaketa

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzu Nagusiak Lehen Booktuber lehiaketa jarri du abian. Galtzagorri elkartearekin elkarlanean ipini du lehiaketa martxan.

"Horren guztiaren berri emateko, 14-18 urte bitarteko gazteekin batera bilera bat prestatu dugu Usurbilgo Gaztelekuetan. Ekainaren 15ean osteguna, arratsaldeko 18:00etatik 19:30era", Sutegitik aditzera eman digutenez. Sorpresaren bat edo beste ere izango da tartean.

Informazio gehiago, Sutegiko liburutegian edota ondoko helbidean: www.booktuberboom.wordpress.com.



Ekainaren 15ean osteguna, Usurbilgo Gaztelekuetan elkartuko dira, 18:00etatik 19:30era.

www.booktuberboom.wordpress.com.

Jubenil mutilak mailaz igo dira



Ohorezko mailara igo ziren maiatzaren 27ko asteburuan Usurbil Futbol Taldeko jube-

nil mutilen futbol taldekoak. Iruditan dituzue jokalariek. Zorionak!

Mariskada



1.700 izan zen, euskal presoen eskubideen aldeko Sagardo Eguneko mariskadaren zozketako zerbaki saritua. Axen Pagolari egokitu zaio mariskada.

Berria txapelketan, aurrera

Aurreko asteburuan Pagazpe eta Oberena taldeen arteko norgehiagoka jokatu zen Urnietan. Jendetza hurbildu zen eta partida azken tantora arte emozioz beterikoa izan zen. Azken tantoan usurbildarren alde egin zuen partidak. Pagazpe, beraz, aurrera doa Berria txapelketan.

Lorazain lanpostura aurkezteko epea

Estatuko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 30ean argitaratu zuten iragarkia, beraz izen-emate epea maiatzaren 31tik ekainaren 19ra, biak barne, izango da.

Informazio gehiago web orri honetan aurkituko duzue:

www.usurbil.eus/eu/lan-es-kaintza

2017 urteko diru-laguntzak

Diru-laguntzen Batzordearen ebazpen proposamenari alegazioak aurkezteko epea ere, oraintsu zabaldu da.

2017ko diru-laguntzei dagokionez, ebazpen proposamena egin du Diru-laguntzen Batzordeak. Orain interesatuek 10 eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko.

■ Epea: maiatzaren 31tik ekainaren 13ra, biak barne.

■ Iragarkia maiatzaren 30ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

■ Sailak: Kultura, Gizarte Zerbitzuak, Kirola, Ingurumena, Nekazaritza eta abeltzaintza.

■ Informazio gehiago: www.usurbil.eus/eu/iragarki-taula web orrian.

Udalak inkesta bat jarri du martxan

65 urtetik gorako herritarrek Gizarte Zerbitzuen inguruan duten iritzia jasotzea da helburua.

Udalak aditzera eman duenez, Aztikerreko inkestatzaileek beti beren gainean eramango dute inkestatzaile gisa identifikatzen dituen akreditazioa. Gutxi gora behera 25 galdera egingo dira eta elkarrizketak euskaraz zein gaztelaniaz egingo dira, elkarrizketatuaren nahiaren arabera.

Ramon Unanueren aldeko aitortza herritarra, auzolanean prestatzen

Denak ez daude ondoko irudian, gehienak bai. Kirol jarduera ezberdinetan hezi eta trebatutako herritar taldea da, ekainaren 24rako ondo baino hobeto ezagutu zuten Ramon Unanue Matxaini merezitako aitortza herritarra prestatzen ari dena. Kirol jarduera ezberdinak ospatuko dira San Juan egunez frontoi inguruan. Ramonen argazki bilduma bat ere ikusgai izango da eta arratsalde horretarako iragarri dituzten hitzorduak borobiltzeko, aitortza herritarra egingo zaio Ramonen sendeiei.

Unanue omentzeko hamaiak arrazoi baitago, maiatzaren 30ean Usurbilgo Udalak aitortza herritar hau egitearen alde aho batez onartu zuen erakunde adierazpenak jasotzen duenez. Ramon nor izan zen ezagutzera eman nahi dute, eginiko ekarpen itzela aitortu. "Usurbilgo ondare humanoa da", ondorioztatzen du aipatu adierazpenak.

Kirolari eta prestatzaile

1953ko martxoaren 18an Kalezarreko Iparralde etxean jaio-tako herritarra "kirolari aparta izan zen 70-80ko hamarkadatan, bereziki pisu jaurtiketan. Atletico San Sebastian taldean jokatu zuen, urte batzuetan Miel Unanue lehengusu usurbildarrarekin batera. Pisu, disko eta mailu jaurtiketetan aritu zen, baina lehenengoan lortu zituen bereziki marka aipagarrienak".

Ehunka herritar prestatu ditu

Aipatu moduan ordea, denetarikoa kirol jardueretan aritu zen Ramon. Sokatiran, giza-proban... Herriko jardueretan zuzenean parte hartzen edo laguntzen aritu zen sarritan. Kirol jarduera gehiagorekin lo-



Kirol jarduera ezberdinetan hezi eta trebatutako herritar taldea da, ekainaren 24ko ekitaldia prestatzen ari dena.

tura ere izan zuen prestatzaile gisa. Usurbilgo kirol talde eta ehunka herritar prestatu eta hezi ditu. "Artista itzela izan zen prestatketa fisikoa kirol mota bakoitzera zein kirolari bakoitzaren ezaugarrietara egokitzen. Eskubaloia, futbola, txirrindularitza, pilota, kale gimnasia anitza, kirol egokietua, atletismoa (pisu eta mailu jaurtiketa...), herri kirolak (harriz jasotzea, giza proba, sokatira...), arraunlariak...", dio omenaldia antolatzen ari den talde sustatzaileak aurkeztu eta Udalak aho batez onarturiko erakunde adierazpenak. Bi zutabe nagusitan eraiki zuen bere eskola propioa, "kirola-

riak norberarengan konfiantza sortzeko gaitasuna eta mentalitate jantzia". Kirola tresna gisa baliatu zuen pertsonengana heltzeko.

Ramonen argazkiak biltzeko deia

Ramon Unanueren argazki bilduma bat ere ikusgai jarri asmo dute antolatzaileek omenaldi egunean bertan. Irudi sorta aberaste aldera, Ramonen argazkirik izan eta erakusketarako utzi nahiko bazenu, antolatzaileek biziki eskertuko lukete. Argazkiak xmerre@gmail.com helbidera helarazi.

Xanti Eizagirrenen omenez



Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolak antolatuta, bere omeneko alebin eta infantil mailako lehen saria jokatu zen joan den larunbatean, ekainaren 3an, Usurbilen. Ondoa duzue txirrindularitza proba honen amaieran atara zuten taldeko argazkia. Irudia: Buruntzazpi.

Ekainaren 11n, Erratzu-Etxalar mendi irteera

■ Abiatzeko hitzordua: 07:30ean autobusez, Oiardotik (izen ematea itxita dago jada).

■ Ibilbidea: Erratzu-Etxalar, 23 kilometro (Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko seigarren etapa).

■ Janaria norberak eraman beharko du. Edaria Andatza M.K.T.-k eramango du.

■ Derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea.

■ Informazio gehiago: andatza@hotmail.com andatza.com

Usurbil Keren batzar orokorra

Ekainaren 16an ostirala, arratsaldeko 19:30ean Po-txoenean. Gai zerrenda:

- 1.- Lehendakariaren agurra.
- 2.- 2016-17 denboraldiko balantzea.
- 3.- 2017-18 denboraldirako aurreikuspenak.
- 4.- Zuzendaritza Batzordearen eta bazkideen proposamenak (proposamenen bat egin nahi duen bazkideak usurbilke@gmail.com helbidera helarazi ekainaren 11 baino lehen).
- 5.- Zuzendaritza batzordearen kargu uztea jakinaraztea 2017/06/30ean.
- 6.- Zuzendaritza batzorde berria izendatzea, egoki bada, 2017/07/01etik aurrera jarduteko edo Zuzendaritza batzorde berririk ezean, Usurbil Kirol Elkartearen likidazio prozesua abian jartzea.
- 7.- Galdera-eskaerak.

Eskubaloia, Selektzioa Ekainak 11, igandea

■ 10:00 Infantil mutilen Gipuzkoako Selektzioaren entrenamendua Zarauzko Aritzbatalden. Usurbil K.E.-ko jokalaria Eneko Furundarena deitu dute hitzordura.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berriua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegaldien. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berriua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trastelekua. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekia,

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila

nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurreana 10ean. 620024663

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsua. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Sukaldari laguntzaile bat behar da jatetxe baterako. Gidatzeko karnetarekin eta kotxearekin. Tel. 680 483 164

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska gazte bat eskaintzen da

euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrik emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrik emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edoizen modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketara lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro². 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketa egiteko orduka edo goizetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke or-



Urteaskuan June!

Ekainaren 6an, hamaika urte betetzen dituzu. Muxu potolo bat. Unax, Oihan, Anje eta Aratz.

OHARRA: 2017ko ekainaren 16an aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: ekainaren 12an astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

duka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldaren ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Ettxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldarlan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehalan lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Ettxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritze-

ko, ... 688 642 835 / 697 887 581.

Ettxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatekx batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak

zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrik, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko,

eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxe etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile titulurekin. 666 798 804.

BESTELAKOAK

Zilarrezko pultsera bat aurkitu nuen maiatzaren 29ko astean, Esnaola lurrian-denda parean (Zubiurrena, 3) 943 37 22 97.

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enorktxadara salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzailerak, telebistak, patineteak, liburuek... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Kutxo Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 08	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 09	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 10	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 11	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Astlehena 12	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astearte 13	GANDARIAS-URIBE Iñigo	Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 14	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ekainak 08 - ekainak 18

Osteguna 15	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 16	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 17	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 18	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

09 ostirala

- **"Irudipuinak" ikuskizuna.** 17:00etan Po-txoenea ondoko plazatzxan. Ondoren, txokolate-jana.
- **Eskulan erakusketa** Sutegiko erakusketa gelan. Antolatzailea: Hitz Aho.

10 larunbata

- **Udarregi Ikastolaren Eguna.** Egun osoko egitaraua, orrialde honen azpikaldean.
- **Dantza emanaldia.** 18:00etan Sutegin. Antolatzailea: Warda Mallal.
- **Eskulan erakusketa** Sutegiko erakusketa gelan. Antolatzailea: Hitz Aho.

11 igandea

- **Erratzu-Etxalar mendi irteera.** Irteera: 7:30ean autobusez, Oiardo Kiroldegitik. Aldez aurretik eman behar zen izena.
- **Eskulan erakusketa** Sutegiko erakusketa gelan. Antolatzailea: Hitz Aho.

Ostiral arratsaldean, "Irudipuinak" ikuskizuna eta ondoren txokolate-jana

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria eta Mattin marrazkilaria dira emanaldi honetako protagonistak. Ixabelek ipuinak kontatzen dituen bitartean, Mattinek irudiak marraztuko ditu. Dena zuzenean eta jendaurrean. Ikuskizunaren ondoren, txokolate-jana egingo da Askatasuna plazan.

Euria egiten badu, saioa Askatasuna plazan egingo da. Udarregi Ikastolak antolatu du saio hau eta 17:00etan hasiko da.



Irazu kaleko "anfiteatroan" egingo dute ikuskizuna. Irudian den plazatzxan.

Larunbat honetan, Ikastolaren Eguna

- 09:30 Esnadeia.
- 09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.
- 10:30-13:00 LH eta DBHko ikasleen eskulan eta teknologia lanen erakusketa Ikastola gorrian (Gernika Ibilbidea 11).
- 12:00 HHko Haur Jaialdia Oiardo kiroldegian (Ateak 11:40ean irekiko dira, sarrera ate nagusitik izango da).
- 14:00 Herri bazkaria eta bazkal ondorengo girotzea gurasoen eskutik frontoian.
- Antolatzaileak: Udarregi Ikastola eta Hitz Aho Guraso Elkarteak.



Goizeko 9:00etatik 12:00etara LH eta DBHko ikasleen jokoak Udarregi ikastolan.

Datozenak

San Juan jaien egitaraua

Ate joka ditugu Kalezarko festak. Aurtengoan, asteburu bakarrean ospatuko dira: ekainaren 23tik 25era. Oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak (ekainaren 24an) Kaffa kafetegian salgai izango dituzue ekainaren 12tik 20ra.

Ekainak 23 ostirala: San Juan bezpera

15:00 San Juan eskearen irteera. 22:00 San Juan sua. Ondoren eskearen jarraipena. Amaitzean, Eromeria taldearekin dantzaldia.

Ekainak 24 larunbata: San Juan Eguna

09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera. 11:30 Meza Nagusia. Ondoren, toka. 13:00 Gorritiren Showa. 14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria. 16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da). 16:30 Buruhandiak. 17:30 Herriko dantzariak. 18:30 Soka Dantza. Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik. 23:30 Zesuma taldea. Ondoren, DJ Seymar.

Ekainak 25 igandea: Umeen Eguna

10:00 XV. Ume krosa. 11:30 Jolasak. 16:30 Tailerrak. 18:00 Txokolatada. Ondoren, buruhandiak. 19:00 DJ Guderekin dantzaldia. Oharra: Jai Bartzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.



Amonaren lapikoa dastatu nahi baduzu...

Gure Elkarteak

~ Santuenea ~

Eguneko platera 6€ - Eramateko aukera! Deitu: 686 55 41 45



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97





serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

noaua euskararen aterpe


Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkide^{ta}: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus




Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:



[www.noaua.eus](http://www.noa<u>ua</u>.eus)

Edertu zaitez!

Inar
ESTETIKA

Zure azala
Kalitate handiko
produktuekin
zaintzen dugu



Munalurra 2, Usurbil - 943 571 680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 626 603 600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

EKAINEN ESKAINTZA

GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:
LEHEN 30€ - ORAIN 25€

**ADINAREN AURKAKO
TRATAMENDU BEREZIA:**
LEHEN 40€ ORAIN 35€

AURPEGIKO GARBIKETA: 20€

**424 SAKONEKO NUTRIZIO
ZELULARRA:**
LEHEN 50€ ORAIN 40€

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekia!
Nagusia 8, Usurbil Tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA

Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kotsarbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua

ORGANIKOA
KUNDA

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951